PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGU AGIRIA

ZERBITZU KONTRATUA

PROZEDURA IREKIA

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO GARAPEN AGENTZIA SAILEKO “2025-2030 PLAN ESTRATEGIKOAREN” DOKUMENTU ESTRATEGIKOAREN IDAZKETA

AURKIBIDEA

I. SARRERA ETA AURREKARIAK 3
II. KONTRATUAREN XEDEA ETA NORAINOKOA 3
III. PROZESUAREN AZPI-XEDEAK 4
IV. FASEAK 5
V. LANAREN ANTOLAKETA 9
VI. KOMUNIKAZIOA 11
VII. KONTRATUAREN IRAUPENA 13
VIII. ENTREGATZEKO MATERIALAK 13
IX. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN INGURUKO EXEKUZIO BALDINTZAK 14
X. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALORREAN 17

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO GARAPEN AGENTZIAKO 2025-2030 PLAN ESTRATEGIKOAREN DOKUMENTU ESTRATEGIKOA IDAZKETA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I. SARRERA ETA AURREKARIAK

Urola Kostako Udal Elkarteak eskualdeko ekonomiaren eragile gisa, bere egiten du eskualdean talentua sortzeko nahiz mantentzeko, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta tokiko garapena sustatzeko ekimenak diseinatzea eta dinamizatzea, tokiko enplegua eta biztanleen ongizatea hobetzeko.

Guzti hau kontuan hartuta, eta murgilduta gauden egungo egoera ekonomiko eta gizarte aldakor honetan, gure eskualdea bereizten dituen aukera eta erronkak lerrokatzen dituen plan estrategikoa garatu nahi dugu.

“2025-2030 Plan Estrategikoa” lantzeko prozesuak, eskualdearen etorkizuneko ikuspegia zehaztea eta hura errealitate bihurtzeko; eskualdeko tekniko-politikoak, herritarrak, enpresak eta eragileak estrategia berean lerrokatzea bilatzen du; hau da, egungo errealitatearen eta etorkizunerako nahiko genukeen eskualdearen arteko aldea gainditzeko, beharrezko ibilbidea egiteko ildo estrategikoak elkarrekin lantzea.

Horretarako, beharrezkoa izango da balioak eguneratzea, lanen eta proiektuen lerroak definitzea, eta lortu nahi dugun eskualde ereduari buruzko gogoetarako parte-hartze prozesu bat hastea. Hala, “2025-2030 plan estrategikoan”, gogoeta estrategiko bat egiteko konpromisoa jasotzen da, non aipatutako partaide aktiboek etorkizuneko eskualde ereduaren diseinuan arituko diren.

Hain zuzen ere, jarraian garatzen diren zehaztapen teknikoek gogoeta estrategikoa eta plan estrategikoa idazteko baldintzak zehazten dituzte.

II. KONTRATUAREN XEDEA ETA NORAINOKOA

Kontratu honen xedea da, garapen sozioekonomiko jasangarri eta iraunkor ikuspegitik eta, eskualdeko etorkizuna irudikatzeko, Urola Kosta Udal Elkarteko garapen agentzia saileko **plan estrategikoa zehazteko balioko duen prozesua diseinatu, dinamizatu, garatu, eta dokumentu estrategikoa idazteko lanak egitea**; eta horretarako ere, barne nahiz kanpo komunikazio gardena eta argia izateko euskarriak diseinatzea**.**

Prozesuak gai izan beharko du egun bizi dugun errealitatearen inguruko gogoetari bide emateko, kolektiboki desio dugun etorkizuneko eskualde ereduaren balio eta ezaugarri nagusiak irudikatzeko; balio eta ezaugarri horien baitan eskualde gisa garatu beharreko ildo nagusi edota misioak zehazteko, baita; ildo edota misio horien bueltako hainbat proiektu estrategiko definitzeko ere.

Bestalde, gobernantza partekatuaren printzipioetan oinarrituta, ezinbestekoa izango da hau guztia ordezkari politiko, udal teknikari, herritar, enpresa nahiz eragileen ikuspegiak bilduko dituen **partaidetza prozesu** baten bidez egituratzea.

Prozesuaren oinarrizko beste irizpide bat, eskualdean **herritarren, enpresen eta eragileen parte hartzea bultzatzea eta sistematizatzea** da. Hori kontuan hartuz, alde batetik, plana egiteko prozesu osoaren parte hartze plana diseinatuko da; eta, bestetik, hainbat estrategia diseinatuko dira plana onartu eta gero ere, parte hartze horrek jarrai dezan, haren jarraipena egiteko.

III. PROZESUAREN AZPI-XEDEAK

Xede orokorraz gain, honako azpi-xedeak erdiesteko funtzioa izango du lanak:

- “2025-2030 Estrategikoa” dokumentua lantzeko lagungarri izan daitezkeen **gogoetei bide ematea**: egungo egoeraren diagnostikoa lantzea, ondorengo gogoetarako baliagarriak izan daitezkeen lan tresnak nahiz dinamikak lantzeko.

- Herritarrei, enpresei nahiz eragileei, elkar entzunez, **elkarlanean eta lankidetzan** etorkizuneko gakoetan pentsatzeko eta lan egiteko tresnak bultzatzea. Horretarako, egoki jotzen den informazio, ekimenak, metodologiak eta deialdi moduak proposatu beharko dira, kasuan kasu, bereiztuak.

- Herritarrek, enpresek nahiz eragileek politika publikoetan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea, herritarrak, enpresak, eragileak **partaidetzaren kulturan edota sarean** hezi daitezen aukera zabalduz, ahalduntzea eta eskualdeko etorkizuneko eraikuntzan subjektu aktibo izan daitezela sustatuz;. Hori guztia ahalbidetzeko, **eskualdeko herritarren, saileko izaeraren, enpresen nahiz eragileen behar eta ezaugarrietara egokitzea** ezinbestekoa izango da.

- Gogoeta honek dokumentu estrategiko bat baino zerbait gehiago ekarri behar digu: lerrokatze ariketa bat izan behar du. Alegia, udal elkarteak nahiz udalek (ordezkari politiko zein teknikariek), eragileek, enpresek eta herritarrek etorkizuneko **eskualdeko ikuspegi partekatu** batean lerrokatzeko balio behar du. Lerrokatzeak, aukera emango digu elkarrekin irudikatutako etorkizunaren eragile izaten. Hau da, subjektu aktibo bihurtzeko etorkizun hori eraikitzen elkarren arteko ekarpenen bidez. Horrek ere prozesu honen helburu izan behar du.

- Lagundu behar du gogoeta estrategiko honetatik harago joan eta **politika publikoen gardentasunean** aurrera egiten. Planaren helburuetako bat da eskualdean bizi diren pertsonei tresna erabilgarri bat ematea plangintza ezagutu eta horren jarraipena egin ahal izateko (zer gauzatu eta bete den).

- Udal Elkartearen urteko **aurrekontuak erraz egiteko moduan** diseinatuko da plana. Hori dela-eta, idazketa ereduak aukera emango du programatzen den ekintza bakoitzari aurrekontu bat esleitzeko.

IV. FASEAK

Hauek dira proiektuaren faseak:

1- Hasierako kontrastea

Dokumentu estrategikoa definitzeko abian jarriko den prozesuaren diseinua aztertuko da. Urola Kostako Udal Elkarteko sailaren izaera ezagutu eta egun zerbitzutik nahiz udal elkartetik egiten diren ekimenen berri izango du.

Prozesuaren garapenerako beharrezkoa duen informazioa zein den zerrendatu eta partekatuko da. Errealitatearen irakurketa partekatua egingo da, espektatibak neurtu eta prozesuaren mugak zehaztu.

- ✓ **Emaitza:** Eskualde nahiz erakundearen ezaugarriak identifikatzea. Komunikazioaren esparruan egingo den lana fase honetan aurreikusi eta planifikatu beharko litzateke.
- ✓ **Aurreikusitako datak:** 2025ko martxoa

2-Diagnostikoa

Dokumentu estrategikoa osatzeko beharrezkoak diren informazio sozio ekonomikoa (gutxienez, honako dimentsioak aztertuko dira: demografia, ekonomia, gizartea, lurraldea eta ingurumena) eta informazio horren aurre gogoeta bilduko dira. Helburua orain arte egindako bidearen inguruko balantze kolektiboa egitea izango da, eta ondoren, egun nahiz etorkizunean ditugun erronken identifikazioa egitea.

Fase honetan bildutako informazio kuantitatibo eta kualitatiboan oinarrituta, eskualdearen egoera sozioekonomikoa eta Udal Elkartearen egungo egoera laburbilduko duen dokumentua egingo da. Urola Kostak eskualde gisa dituen erronka nagusien identifikazioa. Orain arteko bideak irakatsitakoekin eta egungo diagnostikora gehitutako osagai berriekin “2025-2030 Plan Estrategikora” begira dituen erronkak identifikatu eta zerrendatuko ditu.

Horrez gain, udalaz gaindiko eta Europa mailako beste plan, lan lerro estrategiko eta gogoeta- esparru batzuk aztertuko ditu (eskualdeko eta erakundeko izaerarekin lerrokatuak daudenak) eta eskualderako eredugarri izan daitezkeenak.

Diagnostikoaren txostena sintetikoa eta bisuala izango da. Ondorio argiak jasoko ditu, eta ondorengo fasearen helburuak formulatzeko erabiliko dira.

Analisi honetan aintzakotzat hartu beharko dira azken urteotan burutu diren arlokako hainbat diagnostiko edo plan, esaterako, 2024ean onartutako enplegu plana.

- ✓ **Emaitza:** Egungo errealitatearen diagnostikoa eta, gure eskualdearen etorkizuneko erronken identifikazioa irakur erraza eta bisuala, dokumentu estrategikoa lantzeko ikuspegi egokia eskaintzen du(t)en aurre gogoeta edo marko orokorra.
- ✓ **Aurreikusitako datak:** 2025ko apiriletik-2025 ekainera

3- Diseinua eta planaren formulazio estrategikoa

Diagnostikotik abiatuta, **baloreak eta etorkizuneko ikuspegia** definituko dira. Etorkizuneko ikuspegi horretan, erabili izan den saileko zerbitzu/atalen logika hautsi eta **elkarren arteko ikuspegi bateratua** landuko da.

Horrez gain, dokumentu estrategikoa definitzeko abian jarriko den **partaidetza aktiboaren diseinua eta zehaztapenak** landuko dira.

Lanketa hau prozesu honen gidaritza eramateko definitzen den espazio politiko teknikoan egin beharko da eta prozesuaren jarraipena egiteko ardura esleitzen zaien espazioetan kontrasteak egitea komenigarria izango da.

Prozesuan zehar enpresa esleipenduna arduratuko da eragileen parte-hartze saioak dinamizatzeaz eta antolatzeaz (behar diren guztiak), bai diseinu fasean, bai diagnostikoan, eta bai ekintza planean.

Partaidetza prozesu honetatik, “2025-2030 Plan Estrategikoari” begira dituen **erronkak lehenetsiko** dira. Eskualde garapenerako ardatz zehatzen lehenesteak aukera eman diezaguke lan egiteko modua sektorializatzeko edota espezializatzeko, horretarako, eskualdean ditugun arlokako eragileak, eskualdeko enpresak, ekintzaileak, herritarrak… baliatuz gogoeta gune gisa. Erronkak gutxienez honako dimentsioetan landuko dira: Gizartea, Jasangarritasuna, Ekonomia, Lurraldea, Politika, Teknologia.

Planaren formulazioa nahiz partaidetza garatzeko prozesuaren xedea eta nolakotasuna ongi zehaztuko dira: helburuak, faseak eta urratsak, metodologia, lortu nahi diren emaitzak, prozesuaren jarraipenerako espazioak, epeak eta baita prozesuaren garapenak beharrezko duen komunikazioa ere.

2030. urtera begira, aurreko fasean lehenetsitako eskualdeko erronkak kontuan hartuta, “2025-2030 Plan Estrategikoari” begira jorratu beharreko bidearen ardatzak ongi zehazteko unea izango da, ondoren horiek, proiektu nahiz lan lerro posibleez hornitzeko. Proiektu-proposamenak egin eta adosteko unea ere izango da. Horrez gain, erronkak edota lan lerroak Agenda 2030 garapen jasangarriko (17+1 GJH) zein helbururekin lerrokatzen den adierazi beharko da.

Parte hartze plan batean jasoko den lan hori guztia parte hartze eta dinamizazio tekniken bidez egingo da, eta, bere garapenean kontuan hartuko da aurretik aipatutako zeharkako ikuspegia.

Planaren txostena sintetikoa eta bisuala izango da. Planaren garapenerako egindako pausoak eta partaidetzak prozesuaren emaitzak modu erakargarri baten azalduko dira.

- ✓ **Emaitza:** Gure eskualdearen etorkizuneko saileko balioak, etorkizuneko ikuspegia, ardatzak, erronka eta proiektu posibleak jasotzen dituen dokumentu estrategikoa, gutxieneko plangintza zehaztu beharko du. Ardatz horiek garapen jasangarriko helburuekin lerrokatuko dira (GJH 17+1).

  Dokumentu estrategikoaren garapenerako gobernantza egitura, osatzeko emandako pausoa eta tresnak (ebaluazio sistema, jarraipenerako tresnak...).
- ✓ **Aurreikusitako datak**: 2025ko maiatzetik 2025ko azaroak hasierara.

4- Ebaluazioa eta sistematizazioa

Prozesuaren etengabeko ebaluaziorako mekanismoak ere aurreikusiko dira, horretarako espazioak eta uneak plangintzan txertatu.

Gainera, prozesuaren amaieran, planaren ebaluaziorako sistematizazioa jasoko da, prozesuak izandako indarguneak nabarmendu eta ahulguneak gainditzeko etorkizunerako metodologia proposamenak egingo dira.

- ✓ **Emaitza:** Ebaluaziorako sistematizazio dokumentua. Prozesuaren nahiz plana burutzeko ibilbidearen memoria orokorra, adierazleen jarraipena eta errebisioak egiteko prozedura zehaztuko da.
- ✓ **Aurreikusitako datak:** 2025ko irailetik 2025ko azaroa hasierara.

KRONOGRAMA

	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI
Kontrastea									
Diagnostikoa									
Diseinua eta planaren formulazio estrategikoa									
Ebaluazioa eta sistematizazioa									

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Esleipendunak jarduera hauek gauzatzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

a) Plegu hauetan jasotako zehaztapenen araberako egitasmoa definitzea.
b) Prozesua aurrera eramateko beharrezko antolaketa eta egituraketa abian jarri eta dinamizatzea. Hala nola, prozesuaren diseinu, garapen eta jarraipenerako aurreikusitako guneak antolatu, dinamizatu eta euren artean koordinatzea, lanerako behar duten informazioa eta ikuspegia partaideen eskura jartzea.
c) Prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren tresnak diseinatu eta aurrera eramatea.
d) Herritarren, enpresen nahiz ekintzaileen aniztasuna aurreikusiz eta aintzat hartuz lan egitea, parte-hartzaile guztiak zilegi eta parte sentiaraziz.
e) Lan-saioak eta prozesuaren ekimen desberdinak diseinatzea, dinamizatzea, ebaluatzea eta sistematizatzea.
f) VI. puntuan zehazten diren komunikazio eginkizunak betetzea.
g) Prozesuaren garapenerako interesekoa izan daitezkeen bestelako bilera edo gune gehigarritan parte hartzea, Udal Elkarteak egoki joz gero

Aipatutako lana burutzeko, adjudikazio- hartzaileak beharrezko langileak izendatuko ditu, proiektuaren garapenak beharrezko kalitatea eta emaitza izan ditzan eta ezarritako iraupenarekin (9 hilabete) eta epeetan bukatua egon dadin.

Entitate adjudikazio hartzaileak esplizituki azaldu beharko du zein langilek gauzatuko duten lana, horien eskarmentua, proiektuan izango duten ardura/rola eta eskainiko dioten dedikazioa.

Horrez gain, bere eguneroko lanean ahalegin berezia egingo du jatorri ezberdinetako herritarrak prozesuan era inklusiboan integratzen; eta arreta jarriko du edozein bazterketa (sozial, kultural zein genero arlokoa) eragin dezaketen jarrera zein planteamenduetan berauek ekidin ahal izateko.

V. LANAREN ANTOLAKETA

Prozesu hori **herritarren, enpresen eta eragileen parte hartze zabal eta ahalik eta anitzenean oinarrituko da,** eta gai izan beharko du, elkarri entzunez eta lankidetzan etorkizunerako eskualde ereduaren inguruko gogoeta partekatua ahalbidetzeko.

Gogoeta-prozesua arrakastatsua eta eraginkorra izan dadin ezinbestekoa izango da prozesuaren lidergotza ongi finkatzea, bai kontrastatu beharreko abiapuntuko planteamenduak egiteko, bai prozesuarekin lotutako eguneroko erabakiak hartzeko, baita prozesua hasierako asmoetatik aldentzen ez dela bermatzeko ere.

Prozesua abiatu bezain pronto, gidaritza talde politiko-tekniko bat eratuko da, eta kontratu honen esleipendunaren akonpainamendua izango duena. Egitura hau osatu eta bere lan dinamika zehaztea izango da prozesuaren beraren lehen urratsetariko bat.

Gainerakoan, ondoren zehazten diren esparrutako pertsonen eta eragileen ikuspegiak lerrokatzea eta ekarpenak eta parte-hartzea bermatzea ezinbestekoa izango da. Eremu horietako bakoitzak berariaz egokituriko estrategia eta metodologiak beharko ditu:

BARRUKO PARTE-HARTZEA

a) Politikarien esparrua: eskualdea osatzen duten talde politikoetako kideek informazioa jaso eta parte har dezaten berariazko espazioak habilitatu beharko dira. Garrantzitsua izango da zein unetan eta nola egitea komeni den zehaztea.

b) Esparru teknikoa: udal elkarteko zein udaletako egituran lan egiten duten teknikariek. Eskualdearen antolaketan indarrean dauden lan esparruak barneratzeko eta berriak barneratzeko interesgarria izan daiteke lanketa teknikoak burutzeko. Beharrezkoa ikusten den kasuetan, nolanahi ere, berariazko bilerak deituko dira.

KANPOKO PARTE-HARTZEA

c) Herritarren esparrua: banaka zein modu antolatuan eskualdean bizi diren zein bere jarduera eskualdean gauzatzen duten pertsonak. Talentua sortu, mantendu eta ekintzailetza edota kalitatezko enplegua sustatzeko herritarren partehartzea.

d) Enpresen esparrua: esparru honetan beharrezkoa da enpresa guztiei parte hartzeko aukera ematea, eta horretarako tresnak eta espazioak egokitzea. Prozesuak bere estrategia definitu beharko du inklusiboa izan dadin eta enpresa ehunaren ezaugarriak nahiz unibertsoa kontuan hartu beharko ditu.

e) Eragileen esparrua: esparru honetan beharrezkoa da eragile guztiei parte hartzeko aukera ematea, eta horretarako tresnak eta espazioak egokitzea.

Esparru honetan beharrezkoa izango da herritar, enpresa, ekintzaile edota eragile orori parte-hartzeko eskubidea bermatzeko, neurriko aukerak, espazioak eta tresnak ahalbidetzea, jakina baita herritarren, enpresen, ekintzaileen nahiz eragileen artean parte hartzeko baldintzak eta premiak ez direla berdinak.

Kasuan kasu aztertu egin beharko da nola jardun, bai deialdia egiteko garaian, baita lana egiterako garaian ere.

Bestalde, baldintzak landu beharko dira inork ez dezan bere burua prozesutik kanpo sentitu arrazoi kultural, jatorri, orientazio sexual, erlijioso, soziolinguistiko, ekonomiko, ikasketa-maila zein aniztasun funtzionalarekin lotutako arrazoiengatik.

VI. KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa oinarrizko lan tresna izango da, eta ondo barneratu beharko da plana landuko den fase guztietan:

- ✓ Batetik, herritarrek, enpresek eta ekintzaileek jakin egin behar dutelako prozesu hau garatzera doala edota garatzen ari dela;
- ✓ Bestetik, prozesuaren xedea zein den ulerterraz egin behar da;
- ✓ Azkenik, ahalik eta modurik zabalean, prozesu honetan parte hartzeko identifikatuak eta motibatuak sentitu behar baitira enpresak, ekintzaileak eta herritarrak prozesua honetan.

Aipatutako helburuak lortzeko estrategia zehaztu eta zereginak zerrendatzea enpresa esleipendunaren ardurapekoa izango da eta beraz, honen inguruko lanketa txertatu beharko badute ere beraien proposamenean, komunikazio plana Udal Elkartearekin adostuta zehaztu eta garatuko da.

Enpresa esleipendunaren zereginak komunikazioaren alorrean honakoak izango dira:

- Komunikazioa proiektuaren barnean egituratu eta planifikatu beharko du; komunikazio estrategia orokor bat sortu, udal elkartearen identitateari jarraituta eta udal elkartearen komunikazio kanalak erabiliko dira (sare sozialak, prentsa oharrak…).
- Udal Elkarte barruko zein kanpoko komunikazioa sustatu beharko ditu, xede talde ezberdinak kontuan hartuta. Horretarako, proiektuaren garapen egokirako beharrezkoak diren irudi, testu eta komunikaziorako beharrezko materiala garatu beharko du.
- Egingo diren jarduerak, partaidetzarako, proiektua bera eta horren faseak komunikatzeko baliagarri izango diren euskarriak sortuko ditu.
- Proiektuari lotuta, elkarlanean arituko da udal elkarteko komunikazio arduradunekin, guztiaren koordinazioa eta ikuskapen bateratua bermatuz.
- Plana garatzeko prozesu guztiaren ibilbidea kontatzeko baliabideak sortu beharko ditu (bideoak, irudi, grafiko edota argazki bidez), proiektuaren komunikazio zein dokumentazio eginkizunetarako irakur errazak.
- Prozesua eta emaitza jasotzen dituen sozializazio euskarriak sortuko ditu. “2025-2030 plan estrategikoaren” ikus-entzunezko laburpen kualitatibo lantzea prozesuan parte hartu dutenen bizipenekin.

Esleitua izango den enpresak erabakiko du zenbat material sortu beharko duen komunikazioa ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

Horrez gain, komunikazio ikuspegitik gutxienez honakoak kontuan hartu behar dira:

Batetik, saileko plan estrategikoa dokumentu estrategiko bat baino gehiago izatea nahi dugu, lerrokatze ariketa bat. Ariketa bat, udal elkarte (ordezkari politiko zein teknikariak), eragileak, enpresak, ekintzaileak eta herritarrak, elkarlanean sortutako etorkizun desiratu bat irudikatu eta etorkizun hori posible izan dadin pauso zehatzak diseinatzeko. Izan ere, ariketa hau elkarrekin egiteak aukera ematen baitigu, guztiok lerrokatu, eta guztiok elkarrekin irudikatutako etorkizunaren eragile bihurtzeko. Komunikazio estrategian hori guztia kontuan hartu beharko da.

Bestalde, egiten dugun oro da komunikazioa eta, beraz, prozesuaren baitan garatzen diren jardueren bidez, prozesuaren balioak islatu behar ditugu. Inklusiboak, kohesionatzaileak, eraikitzaileak, inspiratzaileak eta aktibatzaileak izango diren jarduerak garatzea izango dugu xede. Komunikazioa alorrean proposamen berritzaileak ongi-etorriak izango dira.

Enpresa esleipendunaren plantillarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aplikatuko dela bermatuko da, honako hauekin lotutako politiketan: prestakuntza, langileen hautaketa, sailkapen edo kategoria profesionalak, arreta, mailaz igotzea, soldatak, egonkortasuna edo lanean jarraitzea, ordezkaritza, lan segurtasuna eta osasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua.

VII. KONTRATUAREN IRAUPENA

Gogoeta estrategikoa burutzeko epea gehienez bederatzi (9) hilabetekoa izango da adjudikazioaren jakinarazpena egiten denetik. Plana 2025 urteetan zehar garatuko da.

Lanak kontratua sinatzean hasiko dira. Lizitatzaileek lizitazioan aurkeztutako eskaintzetan lanen programazioa aurkeztu beharko dute, beren kronograma azalduta.
Kontratua amaituko da gogoeta estrategikoaren prozesuaren memoria dokumentua onartzen denean.

VIII. ENTREGATZEKO MATERIALAK

Prozesuan zehar sortuko den materiala Udal elkarteari entregatuko zaio. Hala nola, fase bakoitzaren amaieran, fasearen azalpen deskriptiboa, eta fase horren emaitza jasotzen den dokumentua entregatuko da. Horretaz gain, prozesuko hainbat eragileei aurkezteko material egokitua ere aurkeztuko da.

Hona hemen prozesuan zehar sortuko materialen zerrenda:

1. Egungo egoeraren edo abiapuntuaren laburpena.
2. Diagnostikoaren egungo errealitatean irakurketaren dokumentua eta erronka berriak.
3. Plan estrategiko berriaren erronkak eta lan ardatzak jasotzen dituen dokumentua. Lan-ardatz horiek garatzeko proiektu, proposamenen eta ekintza multzoa.
4. Planaren gobernantzarako tresnak eta proposamenak biltzen dituen dokumentua. (ebaluazio sistema, jarraipenerako tresnak...)
5. Planaren laburpen exekutiboa, irakur erraza eta bisuala.
6. Ebaluazioaren sistematizazio dokumentua
7. Prozesuaren memoria orokorra

Aipatutako entregagaiei gehitu beharko zaizkie dokumentu honen VI. puntuan aipatutako komunikazio-materialak.

Aipatutako dokumentuak euskaraz eta gazteleraz, euskarri informatikoan aurkeztuko zaizkio Urola Kostako Udal Elkarteari.

Kontratuaren amaieran dokumentu guztiak egoitza elektronikotik aurkeztu beharko ditu.

IX. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN INGURUKO EXEKUZIO BALDINTZAK

Baldintza agirian ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu beharrekoak dira.

Gogoeta prozesua diseinatu eta garatzeko lanak kontratatzeko baldintza teknikoen agirian, kontratuaren garapenean hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko irizpideak txertatu eta zereginak zein hizkuntzatan egingo diren jaso du erabiltzaileek hizkuntza hauturako duten eskubidea bermatzeko. Hori horrela, zerbitzu- hizkuntzak euskaraz lehenetsiko da eta erabiltzaileak eskatuz gero gaztelania itzultzaileen laguntza izango dira.

a) Hizkuntza gaitasuna:

Kontratuaren indarraldi osoan enpresa adjudikazio hartzaileak erabiltzaileekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan gauzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Lehiatzaileak lana egingo duten pertsonen zerrenda aurkeztuko du bere eskaintzan, horien guztien euskararen ezagutza adierazita.

Nolanahi ere, eskaintza egiteko unean lehiatzaileak ez badu lana garatuko duten pertsonen zerrenda zehazterik, adjudikazio-hartzaile suertatzen bada, adjudikazioa egin aurretik bermea jartzeko ematen zaion epean eskatutako euskara gaitasuna duten langileak izendatu beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak udal elkarteari aditzera emango dio pertsona horien zerrenda.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk hartu edo kideren bat aldatuko balitz, adjudikazio-hartzaileak aurretiaz emango dio administrazio kontratatzaileari horren berri. Langile horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna izan beharko dute. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langilerik balego horiek ordezteko kasuan ere.

Kontratuaren helburu den zerbitzua emateak herritarrekin zuzeneko harremanean lan egitea eskatzen du, eta bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskaintzeko, kontratuari atxikitako langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako gaitasun mailen pareko gaitasunaren jabe izan behar dute.

Kontratuaren zereginak jendaurrean gauzatuko dituzten pertsonek, gutxienez, C1 gaitasun mailaren pareko maila izango dute.

- Ahozkoan: informazioa eman eta eskatzeko gaitasuna izan behar dute, zuzentasun osoz eta jariotasunez, aurrez aurreko elkarrizketetan zein telefono bidezkoetan.

- Idatzizkoan: gai izan behar dute eskutitzak, laburpenak, espedienteen barruko agiriak, eta abar gramatika zuzentasun osoz idazteko.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza

Ahozko harremana:

Herritarrekin oro har: zerbitzuaren erabiltzaileekiko ahozko lehenengo arreta, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz izango da. Erabiltzaileak edozein unetan erabili ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Langileekin: euskaraz

Bilerak, hitzaldiak, aurkezpenak, partaidetza prozesuak,... herriko eragileekin: ekintzaren hasieran hizkuntza ofizialen erabilera nola kudeatuko den adostu egingo da, eta:

- parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak direnean, bilerak euskaraz egingo dira
- bileran parte hartuko dutenen ulermen maila bermatua dagoenean, nagusiki euskaraz egingo da
- euskaraz eginez gero partaide guztien ulermena bermatzerik ez dagoenean, euskarrien laguntzaz euskararen gutxieneko presentzia bermatzea sustatuko da (idatzizko informazioa, ppt aurkezpenak,...)

Idatzizko harremana:

- parte-hartzaileentzako agiri eta komunikazio guztiak (inprimakiak, oharrak, deialdiak,

ordutegiak...) zein jardueren komunikaziorako erabiltzen dituen dibulgazio euskarriak eta komunikabideentzako oharrak euskaraz edo ele bitan sortu eta bideratuko ditu.

c) Hizkuntza paisaia

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak irizpide hurrenkera honen arabera egingo ditu:

- Mezuak **piktograma bidez** egingo ditu.
- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo ditu euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan,
- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egongo ditu, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udal Elkartearekin adostuta.

d) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa

Kontratuan zehar eratu eta udal elkarteari entregatzen zaizkion agiriak (azterlan, txosten, proiektu, aurrekontu, faktura eta bestelako agiriak) euskaraz/bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

- Dokumentuen izaera publiko denean **elebitan** aurkeztuko da.
- Barne erabilerako eta lanaren antolaketako plangintzak, zirriborroak eta laneko dokumentuak **euskaraz** aurkeztuko dira.

X. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALORREAN

Kontratua gauzatzen den bitartean, esleipendun enpresak emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatu beharko du, baita hizkuntza ez-sexistaren erabilera ere komunikazio eta argitalpen guztietan.

Aipatutako baldintzak kontratuaren betekizun funtsezko izaera dute, eta, beraz, LCSPren 201. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, haien ez-betetzea kontratua azkentzeko arrazoitzat har daiteke, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

1. KONTRATATZEKO DEBEKUAK

1. Kontratatzeko ahalmena izango dute Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekuren baten pean ez dauden pertsona fisikoek nahiz juridikoek.

2. Enpresa lizitatzaile guztiek aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpen bat non adieraziko duten ez daudela gorago aipatutako kontratatzeko debeku horietakoren baten pean, eta berariaz azaldu beharko dute berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.artikulua bete behar duten enpresek prestatu eta aplikatu dutela berdintasun-plan bat enpresan lan egiten duten langileentzat.

3. Behin kontratua adjudikatu denean, enpresa esleipendunari adierazitakoa egiaztatu dezan eskatuko zaio, berdintasun-planaren prestakuntzari eta aplikazioari dagokionez.

2.KONTROL- ETA EGIAZTATZE-SISTEMA

1. Eskaintzak aurkezteko fasean. Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena non adierazi beharko duen ez dagoela kontratatzeko ezein debekuren pean, eta zehatzago esanda, 3/2007 Lege Organikoaren 45.artikuluan ezartzen denarekin bat eginez, enpresa horrek berdintasun-plan bat diseinatu eta aplikatzeko obligazioa betetzen dutela.

2. Esleipenaren ondoren eta kontratua formalizatu aurretik. Enpresa esleipendunak, 3/2007 Lege Organikoaren 45.artikuluak ezartzen duen betebeharraren pean baldin badago, berdintasun-planaren kopia bat aurkeztu beharko du, eta bertan jasoko da 3/2007 Lege Organikoak ezartzen dituen baldintzak eta edukiak.

3.ZERBITZUAREN ZEHAR LERROAK

Lizitatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko dituzte. Ildo horretatik, honako irizpideak kontuan hartu beharko dira:

BERDINTASUN IRIZPIDEAK

- Jarduera horren eduki bakar batek ere ez du edukiko inolako mezu eta/edo ikonografia sexistarik eta genero-ikuspegia kontuan hartu beharko dute.

- Komunikazioa eta ikonografiak EZ-sexistak eta barneratzaileak izango dira.

- Antolatutako jardueraren euskarri, dokumentu eta publizitatean ezin izango dute honakorik egin:

  - Hizkuntza eta irudiak sexistak erabili.
  - Arrazismo edo xenofobia bultzatzen duten irudirik erabili.

- Ezin izango da diskriminaziorik egin sexua, ideologia, jaioterria, nazionalitatea edo sexu-joera bezalako arrazoiengatik.

- Jendaurrean jarriko diren kartelak aurrez bidaliko dira Udal Parekidetasun Departamentura, ikuskatu ahal izateko. Kartelek udalaren berdintasun irizpideak bete ezean ez da baimenik emango.